



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

GURASOENTZAKO FORMAZIO PROGRAMAK

2016-2017 IKASTURTEA

PROGRAMA	IGEentzako KUDEAKETA ETA BALIABIDEAK (Zuzendaritza Batzordeak eta Eskola Kontseiluak)
XEDEA	IGE eta OGG-en parte-hartze, antolatze eta kudeaketa. Barne zein kanpo komunikaziorako baliabide eta tresnak.
SAIO KOPURUA	2-4

PROGRAMA	FAMILIA ETA ESKOLA
XEDEA	Familia – Eskola arteko harremana sendotzea, parte-hartzea eta komunikazioa hobetuz.
SAIO KOPURUA	2-4

PROGRAMA	TEKNOLOGI BERRIAK
XEDEA	Teknologi berrien erabilpena ezagutzea, hauen bidez suertatutako harremanak osasuntsuak izan daitezen.
SAIO KOPURUA	3-4

PROGRAMA	HAURTZAROTIK NERABEZARORA BITARTEKO GARAPEN ETAPAK
XEDEA	Hazkuntzarako estrategiak eskuratzearen, garapenaren alderdiak eta oinarriko beharrak ezagutu
SAIO KOPURUA	3-6

PROGRAMA	AUTORITATEA ETA DIZIPLINA BIZITZA FAMILIARREAN
XEDEA	Autoritatea izateko, diziplina erakusteko eta askatasun, limite, maitasun eta errespetuaren arteko oreka ezartzeko estrategiak.
SAIO KOPURUA	3

PROGRAMA	NORTASUNAREN GARAPENA
XEDEA	Seme/alaben pertsona, eskola zein gizarte adaptazio asegarrria ezagutu eta sustatu.
SAIO KOPURUA	3

PROGRAMA	KOMUNIKAZIOA ETA GATAZKEN EBAZPENEA
XEDEA	Emozionalki trebeak izateko eta familia bizitzan suertatutako ohiko egoerei aurre egiteko komunikazioa.
SAIO KOPURUA	3-5

PROGRAMA	KIDEEN ARTEAN ELKARBIZI
XEDEA	Kideen arteko harremanen ezaugarri eta gakoak: prebentziorako eta gatazken ebazpenerako proposamenak.
SAIO KOPURUA	5



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

PROGRAMA	FAMILIA BIZITZA
XEDEA	Familia bizitzari eragiten dioten alderdi zein egoera anitzak kudeatu.
SAIO KOPURUA	3

PROGRAMA	IKASKUNTZEI BURUZKO ALDERDIAK
XEDEA	Ikastearen inguruko alderdiak, aukerak, zailtasunak, motibazioak...
SAIO KOPURUA	2-5

PROGRAMA	EMOZIO GAITASUNAK ULERTU, ESKURATU ETA PRAKTIKAN JARRI
XEDEA	Familia heziketaren ezinbesteko oinarri gisa, emozioak familia esparruan onartu, aztertu eta kudeatu.
SAIO KOPURUA	3-6

PROGRAMA	KULTUR ARTEAN ELKARBIZI
XEDEA	Kultur aniztasunean elkar ezagutu eta hurbildu.
SAIO KOPURUA	2

* Lehen Programa izan ezik (doan dela), beste guztiek, saio bakoitzeko 105€-ko kostua izango dute.

GURASOENTZAKO FORMAZIO SAIOAK

❖ TEKNOLOGI BERRIAK:

- Sare sozialak eta guraso bitartekaritza.
- Nola kudeatu pribatutasuna eta segurtasuna sare sozialetan.
- Gure seme/alabak eta sare sozial berrien erabilpena.
- Gure seme/alabei, sare sozialetan izandako harremanen kudeaketan lagundu.

❖ GARAPENA ETA BERE ETAPAK:

- Haurren garapena: guraso loturaren eraiketa eta atxikimenduaren garapena.
- Haurra, garapenaren etapa ezberdinetan (2-6 urte bitartekoa, eskola garaia, nerabezaroa).
- Nortasunaren garapena.
- Auto-kontzeptu eta auto-estimua.
- Gurasoentzako auto-estimua.
- Auto-estimua garapenean gurasoen eginkizuna.
- Zer egin dezakegu gurasook seme/alaben auto-estimua sendotzeko?
- Nola sentitu ondo eta seguru guraso bezala.
- Familian konfiantza eraiki.
- Nolakoak izan daitezkeen gure seme/alabak, duten adinaren arabera.

❖ KOMUNIKAZIOA ETA GATAZKEN EBAZPENEA

- Maitasunean hezteko nolako komunikazioa izan.
- Modu positiboan nola adierazi.
- Hobe elkar ulertzeko, nola entzun eta bestearen lekuan jarri.
- Entzute aktibo eta enpatikoaren bidez, komunikazioa erraztu.
- Beren arazoak egoki ebazten ikasi dezaten, seme/alabak nola lagundu.
- Guraso eta seme/alaben arteko negoziazioa zein adostek.

❖ FAMILIA ELKARBIZITZA:

- Familia bizitzaren antolaketa.
- Denboraren kudeaketa familian.



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde

- Gatazkak eta estresa familia bizitzan: kudeaketarako baliabideak.
- Etxeko lana ez da emakumeena bakarrik.
- Familia eta aniztasuna: aitaren edota amaren rolak.
- Anai-arreben arteko harremanak: zeloak, lehiakortasuna... Zer egin dezakegu?
- Zergatik sortzen dira zeloak eta nola eragiten duten egunerokotasunean.
- Esfinterren kontrolaren erdiespena: estimulazioa, eragitea (nola eta noiz).
- Haurren loaldia.
- Elkarbizitzan jarrera positiboak sustatzeko familia estrategiak.
- Kideen arteko gizarte elkarrekintza.
- Genero, aniztasuna eta kideen arteko harremanak.
- Genero eta kideen arteko erasoak.
- Familiatik nola sustatu eskolan berdintasunezko harremanak.
- Arauak, limiteak, sariak, zigorrak...
- Autoritatea familia bizitzan.
- Auto-kontrola, diziplina eta auto-diziplina.
- Nola lagundu gure seme/alabak frustrazioarekiko tolerantzian.
- Gurasoen heziketa ereduak eta hauen eragina seme/alaben jokabideetan.
- Seme/alabekin nola hitz egin gai "zailez".
- Zer egin dezakegu gure seme/alabek ez dutenean esana egiten? Seme/alaben jokabidea ulertu.
- Kideen arteko elkarbizitza eta harremanak nerabezaroan: adiskidetasunetik maitasunezko lehen harremanetara.

❖ EMOZIOAK FAMILIAN

- Adimen emozionala familia bizitzan.
- Seme/alaben emozioak ulertu eta kudeatu.
- Seme/alabei emozioak adierazten lagundu.
- Gaitasun emozionalen ikaskuntza eta garapenerako jolas eta estrategiak.
- Jolasaren garrantzia garapen emozionalean.
- Nola kudeatu egoera zailak familia bizitzan.
- Pazientziaren kudeaketa familian.
- Nola kudeatu haserrea eta kasketak.
- Gezurra nola kudeatu.
- Beldurak haurtzaroan.
- Adiskidetasuna, estimua eta maitasuna haurtzaro zein nerabezeroan.
- Genero eta emozioak haurtzaro eta nerabezeroan.
- Baliabide emozionalak: gurasoei laguntzen dieten jolasak, ipuinak, ariketak...
- Nola egin eskaerak eta kritikak adierazi.
- Nola kudeatu inpultsibitatea.
- Baikortasuna eta positibismoa familian sustatu.

❖ ESKOLA ETA IKASKUNTZA

- Esfortzuan eta arduran hezi.
- Ardura, borondatea eta auto-motibazioa nola garatu.
- Eskola eginkizuna hobetzeko estrategiak.
- Seme/alaben eskola ikaskuntzetan positiboki nola eragin.
- Ikaskuntzaren gakoak: motibazioa, estimulua, ohiturak...
- Familia-eskola arteko harremana: lankidetzaren egokirako estrategiak.
- Ikaskuntza zailtasunak familiaren aldetik nola heldu.
- Ikaskuntzen inguruko arazo, zailtasun eta desorekak.